

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

2017/18 ikasturteko Batxilergoko ezohiko sariak banatu dira

Daniel Sotelo, Celia Carrasco, Ander Aranguren eta Aitor Rubio ikasleek emaitzarik onenak lortu zituzten egindako frogetan

Asteazkena, 2018.eko abuztuak 22

Iruñeko 3 ikaslek eta Tuterako ikasle batek lortu dute iragan ikasturteko Foru Komunitateko Ezohiko Saria. Emaitzarik onenak lortu zituzten horretarako egindako azterketetan, gaur asteazkenarekin NAO-n Hezkuntzako Zuzendari orokorrak eginiko [ebazpenean](#) ikus daiteken moduan.

Daniel Sotelo Aguirre, Sarrigurengo Santa María la Real ikastetxekoa, Celia Carrasco Gil, Tuterako IES Benjamín ikastetxekoa, Ander Aranguren Iriarte, Iruñeko BHI Eunate ikastetxekoa eta Aitor Rubio Aguerri, Iruñeko IES Navarro Villoslada ikastetxeko ikaslea izan dira Hezkuntza Departamentuko aitortza ofiziala jaso dutenak. Orain, denek izanen dute aukera Batxilergoko Sariketa Nazionalean parte hartzeko.

Horretaz gain, euren ikasle-txostenean ageriko da saria jaso izana eta Foru Komunitateko ikasketa gorenetakoz zentro publikoetan ikasiko badute zerbitzu publikoen ordainketarik ez dute egin beharko.